



Iosu Iguñiz Echeveste
Irungo Udaleko Euskara
Ordezkarria

Kaixo, haur eta gazte!

Irungo Udaleko Euskara Ordezkarria naizen aldetik, albiste paregabea da berriro ere "Euskararen Hilabetea" ospatzea. Gure hizkuntzak bizi duen egoera zail eta gogor hauetan horrelako ekimen bat antolatzeak arnasa ematen dio euskarari. Aurten ere, euskaraz sortutako lan eder eta kalitatezkoak izango ditugu taula gainean, eta elkarrekin giro atseginean ikusteko aukera izango dugu.

Egitasmoaren helburu nagusia da antolatzen ditugun antzerkien bidez hizkuntza ohituretan eragitea eta euskal antzerkigintzara hurbiltzea edota kontsumitzea. Azken urteetan, euskaraz sortutako antzezlan kopurua handitu egin da, baina oraindik asko dago egiteke. Horregatik, antzerkiak euskaraz ikustera animatu nahi zaituztet!

Gainera, euskararen erabilera handitu ahal izateko, zuen konpromisoa eta laguntza behar dut. Euskara erabiltzera animatu nahi zaituztet: lagunekin, kirolean, familian edo aisian. Euskara denok zaindu behar dugu. Euskara guk zaindu behar dugu. Euskara norberak zaindu behar du.

Irungo Euskara Zerbitzuan aurtengo euskarazko programazioa ahalik eta erakargarriena diseinatzen saiatu gara, baina datozen edizioetarako iradokizunen bat baduzue prest nago entzuteko.

Espero dut "Euskararen Hilabetea"-n antolatutako antzezlanekin gozatzea.

Datozen egunetan elkarrekin gozatuko dugulakoan, jaso ezazue nire agurrik beroenak.

Irunero

Argitaratzailea:

837 Comunicación y Publicidad S.L.

Maketazioa:

Maialen Sayans Alberdi

Lege Gordailua:

SS-230-94





aurkibidea

BELASKOENEA

- › Eskola udazkenean 4-5. or.
- › Arte tailerra 15. or.

DUNBOA

- › Jolas bideratuak 6. or.
- › Espazioa 16. or.
- › Ekosistemak 24. or.

EGUZKITZA

- › Hostoekin eskulanak 7. or.
- › Denok berdin denok ezberdin 8. or.
- › Lapbooka 17. or.
- › Euskal Herriko Rallya 25. or.

ELATZETA

- › Baso eskola 9. or.
- › Menchu Gal 18. or.
- › Sorginak eta Euskal Mitologia 26. or.

EL PILAR

- › Baso Eskola 10. or.
- › Gabonak 19. or.
- › Gabonetako jaiotza 27. or.

IRUNGO LA SALLE

- › Juan Sebastian Elkano 28. or.

LEKAENEA

- › Gabonetako postala 11. or.
- › Irungo gordailua 20. or.
- › Eskolako baratza 29. or.

SAN VICENTE DE PAUL

- › Amona Tomaxa eta Sagarra 12. or.
- › Eduardo Chillida 21. or.
- › Nire lagun onena 30. or.

TOKI-ALAI

- › Aloe vera 13. or.
- › James Rizzi 22. or.
- › Aintzinaroa 31. or.

TXINGUDI IKASTOLA

- › Pinguino txikiak 14. or.
- › Eguberriak 23. or.
- › Animaliak ezagutzen 32. or.



ESKOLA TXIKIRA UDAZKENA IRITSI DA!

Zapia, zapia, astindu airean
 zapia, zapia, goian dabil dantzan!
 zapia, zapia, koloretakoa
 zapia, zapia, pozik jolasean....



...honela dio, 2 urteko gelan hasi berriak garenok, ikasi dugun abestiak.

Asko gustatzen zaigun abestia da eta batzuetan zapiak guk astindu behar baditugu ere, besteetan, patioan dabilen udazkeneko haizeak egiten du lan hau!

Irailean hasi ginen eta malko, irripar, jolas eta abestien artean, konturatu garenerako udazkenean sartu gara.




Udazkenean naturak eskaintzen dizkigun elementuak, hobeto ezagutzeko, gelara ekarri ditugu. Primeran ibili gara!






3, 4 eta 5 urtekoak ere udazkena lantzen ibili gara ekosistema desberdinetan: sinbolikoan, artean, zientzian, hizkuntzan eta baratzan.

Horma-irudi ederrak egin ditugu gure eskolako paretak apaintzeko!



Txangoa ere egin dugu, eta udazkenean haizeak zuhaitzetatik botatzen dituen hostoekin jolasteko aukera izan dugu.

Txangoan ateratako argazkiekin liburuxka egin dugu, idazten hasi gara eta.



Jasotako hostoekin ere hainbat lantxo egin ditugu.



HAUR
HEZKUNTZAKO
IKASLEOK
ASTERO JOLAS
BIDERATUETAN
PARTE HARTZEN
DUGU.



HITZETZ JOLASTU
ETA
ONDO PASATU





Eguzkitza HLHI- 3 URTE 2025-2026 ikasturtea



Ikasturte hasieran, eskolako inguruan paseatzera atera ginen udazken koloreak ikustera.

Hartutako hostoekin eskulan politak egin genituen eta primeran pasa genuen hosto ezberdinekin espermentatzen.





Baso eskola



**Zenbat ikasten
dugun naturan
jolasten**



**Asteazkenero, basoak
eskeintzen dizkigun
abenturetan murgiltzen
gara**



ELATZETA HH 5



**EL PILAR IKASTETXEA
HAUR HEZKUNTZA**

BASO ESKOLA



Haur hezkuntzako ikasleak astean behin, **BASO ESKOLARA** joaten dira. Bertan, naturaz gozatzeko eta ikasteko aukera ezin hobeak dute.

**NOLA PRESTATZEN GARA
JOATEKO?**



gügan



HH 5

GURASO EI
POSTALA
IDATEI
DIEGU



POSTALA POSTONTSIRA
ERAMAN DUGU





PLAZERA IXABEL I
EUSKARAZ, ERRIMEKIN JOLASEAN
GOZATU DUGU ELKARREN ARTEAN.



*Amona
Tomaxa
eta Sagara*





Ametsen mundua

Potoetan etiketa jarri dugu

Kremaren errezeta idatzi dugu



ALOE VERA
5 urteko geletan, 3 ekosistema desberdinetan, proiektu bateratua landu dugu.

PROIEKTUA

Ehunzango gela

Aloe vera krema egin dugu

Krema potixuetan sartu dugu



Ortzadar gela

Arkatzekin landarearen perfila marraztuz, errealitatea kopiatu dugu.





Negua lantzen ari garen honetan, garaiko animalia txiki hauek egiten aritu gara buru-belarri, baita pinguino txikiaren abestiarekin dantzatzen eta kantatzen! Gustora ibili gara!





MARRAZKETA ETA MARGOKETA



"Marrazketa tailerrean gure irudimena hegan doa!

Oso gustura gaude marrazten ikasten, koloreekin jolasten eta hainbat teknikarekin esperimentatzen: kubismoaren mundu zatitua, marrazki abstraktuaren magia... eta sortzeko eskaintzen dizkiguten aukera guztiak. Gainera, sortutako marrazki guztiak gure kabuz egindako karpeta berezian gordetzen ditugu, gure **arte-bidaiaren altxorrak** babesteko!" Eta tailerrean ikasitakoa ez dugu inoiz ahaztuko; praktikatzen jarraituko dugu, **gure sormena** egunero gehiago hazteko."

BELASKOENEA HLHI LHko ikasleak






Dunboa eskolako
2.mailako ikasleak espazioa
ezagutzera joan dira





EGUZKITZA 2025-2026 IKASTURTEA



1.MAILAKO EK GORPUTZA PROIEKTUAN EGINDAKO LAPBOOKA



elatzeta

menchu gal

Elatzetako bigarren mailako ikasleek Katea auzoko gaia landu berri dugu. Proiektuaren bidez, auzoko komertzioak, kaleak, interesguneak, etab. hobeto aztertu ditugu, baita bertako pertsonaia ospetsuak ezagutu ere.

Pertsonaia horien artean Menchu Gal margolari ezaguna aurkitu dugu. Arteko saioetan bere lanak aztertu ditugu, bere estiloa eta koloreen erabilera ezagutuz. Ondoren, ikasitakoa oinarri hartuta, gure sormenari bide eman diogu eta Menchu Galen eredu hartuta, gure koadro propioak sortu ditugu.

Proiektua esperientzia aberasgarria izan da, auzoa eta artea modu praktiko eta sortzailean lantzeko aukera eman digularik.



El Pilar Ikastetxea LH1 eta LH2





IRUNGO GORDAILUA



LH2

Azaroaren 12an, Irungo
Gordailua bisita egin
genuen. Bertan, lanabes
Zaharrak, antzinako jostailu
eta altzariak, Koadroak, ostarna
arkeologikoak eta abar
ikusi genituen.
Zein aukera bikaina gure
arbasoen ohiturak eta
leizimoduak ezagutzeko.





JAMES RIZZI

Aurten 1. zikloko ikasleek, arte hezkuntzan James Rizzi artista landu dute.



Artista landu eta gero, hiru artelan desberdin egin dituzte, James Rizzik erabiltzen dituen elementuak erabiliz.



Gelak nahastuta, talde lanak ere egin dituzte. Artista ezagutu eta ondo pasa dute!





TXINGUDI IKASTOLA 1. maila



• Eguberria ospatzeko gelan Inmaizudi
bat egin genuen. Bertan, Klentzeren
ETSA, Ipariak eta izelak margotu
genituen. Oso politok geratu ziren.
Anak elkarrerkin lanean egin gin
eta primeran pasa genuen.



Ekosistemak



Sabana



Itsasoa



Ibaia



Basamortua



Kostaldea



Oihana

Dunboa LH3



Eguzkitza
HLHI
LH 4.MAILA

2025-2026
ikasturtea



Ikasturte honetako gure lehenengo proiektua Euskal Herria eta Euskadi izan zen.

Euskal Herrian zehar Rallyarekin leku batetik bestera ibili ginen eta sei etapa egin genituen.

Euskal Herriko Rallya antolatu, eta asko ikastearekin batera, primeran pasa genuen!





GABONETAKO JAIOTZA

EL PILAR
IKASTETXEA

BELENGO
ESTALPEA



LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

EL PILAR LH 2.ZIKLOA



Juan Sebastian Elkano

Elkano urpekari ospetsu bat izan zen. Bere izena Juan Sebastian Elkano zen eta lehenengo pertsona izan zen munduari bira ematen. 1486. urtean Getarian jaio zen.

Bere gaztaroari buruz gutxi dago baño itsasontzi handi baten jabea eta mediterraneoan ibili zela hori ziurra da. Erregearen aginduetara ere ibili zen.

Aita eta ama hil zatzaizkionean joan zen munduari bira bat ematea ,baino ez zuen bakarrik egin. 5 itsasontzi eta 234 kide osatzen zuten espedizioa izan zen ,baina 147 kideek bizitza galdu zuten.

Elkanok egindako aurkikuntzak oso handiak eta garrantzitsuak izan ziren. Bidaiaren ondoren kosmografo lanetan ibili zen mundua marrazten eta bigarren bidai bat egin zuen, non bizitza galdu zuen.





NEKAZARIAK IZATEN I KASTEN

Lehengo hitzilkabete honetan, 4. Mailako ikasleek baratzearen proiektua aurrera eramain dugu.

Hazieran guite eskolan baratzeko landareak erain genituen, hazia nob landatzen den ibarstea osorakita izan zen.

Ondoren eskola ondoko baratzean jasan ginen hango jalearekin eta hazien baratzean

eragutu genuen. Baita Endanean bisita egin genuen, eta landare mota asko eragutu genituen. Azke-

rik eskolan konpostaren tailerra osatu genuen, lurrari bizi daren intsektu eta parasiten garrantzia eragutuzko. Drain nekazariazko gaztelan erain dezakegu!





NIRE LAGUN ONENA

Nire lagun onena Pepe da. Hamar urte ditu eta Bilbon bizi da. Nire ikastetxera joaten da.

Pepek begi handi-handiak eta urdinak ditu, itsaso ura dirudite. Ite beltza eta bizkurra. Beti arropa horia eta barkeroak ditu. Aza txuria, hodei batek bezalakoak. Handia eta lodia da. du

Lagunekin alai da, baina ezezagunekin tristea eta lotsetia da. Oso trebea izaten da futbolean. Mendizalea eta margozalea da. Artista bat da!



Lia



TOKI ALAI IKASTETXEA

AINTZINAROA

Aurten 4. mailakoek 2 zibilizazio landu ditugu: **Egipto** eta **Erroma**.



Honekin lotuta **Oiasso** museora bisita egiteaz gain antzerkiak antolatu ditugu eskola komunitate osorako.

Datu bilketa, talde lana, aurkezpenak, eta antzerkirako dekoratu eta mozorroak egin ditugu.

Primeran joan da guztia; gauza berriak ikasi eta ongi pasa dugu!





Txingudi Ikastolako 3. mailako ikasleak animalien gaia lantzen egon gara 2. hiruhilekoan eta hainbat datu ikasi ditugu. Animalia mota desberdinak ikusi eta haiei buruzko ikerketa txiki bat egin eta gero, ikasle bakoitzak animalia bakoitzaren deskribapena egiteko aukera izan du eta gero hauen bilduma bat egin dugu.



Baseria

Basoa



2026

SOLAS JOLAS

Udaleku irekiak

AURREINSKRIPZIOA ZABALIK

Martxoaren 2tik 13ra bitartean

www.irun.org